

Garzonek ez du neurririk hartu Gorostiaga eta Zapiainen aurka

'Egin auzian' deklaratu dute, Iñigo Iruin abokatuarekin batera


Egin egunkariaren inguruko aferan, atzo beste hiru lagun galdekatu zituen Baltasar Garzon epaileak: Pablo Gorostiagak eta Iñaki Zapiainek inputatu gisa deklaratu zuten, eta Iñigo Iruin abokatuak lekuko moduan. Deklarazioak amaituta, Garzonek ez zuen haien kontrako neurri prebentiborik hartu.

Erredakzioa / Donostia

INPUTATU gisa deklaratu zutenetako bat Iñaki Zapiain Zabala Hernani Inprimategia enpresako administratzailea da, eta bestea Pablo Gorostiaga HBko Mahai Nazionalako kidea, auzian Ardatzako lehendakariorde eta kontseilari gisa ageri dena. Jakina denez, bi enpresa horiek Egin auzian ageri dira, Orain SAREkin batera. Gorostiaga, gainera, espetxeratuta dago Egin egunkaria eta irratia uztailaren 15ean itxi zituztenetik, Garzonen aginduz. Deklarazioa amaitu ostean, inputazioei eutsi arren, Garzonek ez zuen neurririk hartu, baina Zapiainen kasuan zabalik utzi zuen etorkizunean neurriren bat hartzeko aukera.

Bi lagun horiekin batera deklaratu zuen atzo Iñigo Iruin abokatuak. Garzonek lekuko gisa hartu zion deklarazioa; izan ere, Iruin HBko parlamentarioa da EAEko Legebiltzarrean, eta Legebiltzarra deseginik ere batzorde iraunkorreko kide da. Beraz, Garzonek ez du eskumenik inputatu gisa deklarazioa hartzeko. Egin-eko administrazio kontseiluan izandako parte hartzeaz galdetu zion epaileak Iruini.

Gorostiagak bere deklarazioan esan zuenez, ez zuen parte hartu Ardatza enpresako Administrazio Kontseiluaren erabakietan. Adierazi zuenez, ez zekien 1994an kontseiluko lehendakari izendatu zutela. Deklaratu zuenez, berak ez zuen inoiz sinatu Admi-



Iñigo Iruin abokatuak, bizkarrez, atzo Entzutegira sartzen ari zenean.

GUSTAVO CUEVAS / EFE

nistrazio Kontseiluaren erabakiei buruzko paperik, eta ez zen kontseilariarekin bildu.

Bestalde, Gorostiagaren abokatuak jakinarazi zuten erreformazko errekurtsoa aurkeztu dutela, epaileak uko egin diolako aske uzteari.

Todak eta Zalakainek abalak aurkeztu dituzte • Garzonek joan den astean ekin zion berriz ere Egin auziko eginbideei, eta sei lagun deitu ditu deklaratzera orain arte. Lehenengo hirurek joan den astean deklaratu zuten: Teresa Toda, Egin egunkariako zuzendariordea; Jesus Mari Zalakaín, EHUko irakasle kanporatua; eta Jose Luis Elgoro, HBko Mahai Nazionalako kide kartzela-

ratua. Azken biak Orain SA enpresako Administrazio Kontseiluko kide izan ziren 1996a arte.

Toda eta Zalakaín kasuan, Garzonek milioi bat eta 25 milioi pezetako bermea ordaintzeko baldintzarekin utzi zituen libre, eta lau eguneko epea eman zien abalak aurkezteko. Jone Goirizelaia abokatuak jakinarazi zuenez, Todak eta Zalakaín aurkeztu dituzte jada abalak. Teresa Toda Donostiako epaitegian aurkeztu zuen milioi bat pezetako abala, astelehenean, eta Zalakaín, berriz, atzo aurkeztu zuen 25 milioikoa, Bilbon. Elgoro, jakina denez, kartzelan dago, HBko lehengo Mahai Nazionalako kideak bezala. X

Alvarez Santacristinak gutun batean dioenez, ez du «inolako asmo zatikatzailerik» izan

ETAk arrazoi hori argudiatu kanporatu zuen erakundetik, hilabete hasieran

Erredakzioa / Donostia

ETA erakunde armatuak hilaren 3an jakinarazi zuen Jose Luis Alvarez Santacristina Txelis euskal presoak erakundetik kanporatu zuela. Horren ostean, presoak erabaki horren inguruko azalpenak eman ditu EGUNKARIARI helarazitako gutun batean. Alvarez Santacristinak gogoratu du erakundeak zatiketa saioak egitea egotzen diola. «Ez dut inondik

inora horrelako asmorik izan», dio presoak, «Euskal Herrian orainaz eta geroaz ditudan kezka zintzoki eta gardenki, kritikoki bezain autokritikoki, agertu besterik ez dut egin, iritzi kontraste laño eta emankor bat izateko asmoz». Berak eginiko ekarpenak inoren kalterako ez direla izan uste duela dio Txelisek. «Ez dut inongo saio zatikatzailerik egin, ez eta horrelakoren asmorik izan inondik inora».

«Euskal Herriaren Askatasunaren alde borrokatu naiz beti eta halaxe jarraituko dut, alde edo molde, zintzotasunez bezain gardentasunez», amaitzen du. ETAk irailaren 3an jakinarazi zuen Alvarez Santacristia erakundetik kanpo uztea erabaki zuela. Erabakia hartzea zaila izan zela esan zuen ETAk, baina «saio zatikatzailerik argia» egotzi zion. Txelis 1992an atxilotu zuten eta geroztik kartzelan dago. X



Mari Karmen Garmendia, Gobernu bilera osteko prentsaurrekoan.

DAVID AGUILAR / EFE

Trebiñon erreferenduma egiteko eskatu diote Madrili

Estatutuak aurreikusten duen azken urratsa da

FL. / Gasteiz

MADRILGO Gobernuak du hitza Trebiñoko aferari dagokionez. PPko gobernuari erreferendumerako eguna jartzeko eskatzea erabaki zuen atzo Esuko Jaurlaritzak, trebiñarrek euren geroa erabaki dezaten.

Neurri horrekin Gernikako Estatutuak aurreikusten duen azken urratsa egin du Jaurlaritzak. Izan ere, Estatutuak dio konderrria atxikitzeko Trebiñoko bi udalek eskaera egin behar dutela, eta Trebiñok eta Argantzunek hala egin zuten joan den martxoan. Gasteizko Legebiltzarra, uztailaren 15ean, dei egin zion Jaurlaritzari beste urratsak egin zitzaizkion, eta Gaztela eta Leongo Juntari alegazioak eskatu zitzaizkion. Gaztela eta Leonen erantzuna udalei eman zion bera izan da, bereizketaren aurkakoa alegia, baina horrek ez du baliogabetzen EAEk atxikitzeko prozesua aurrera eramatea.

Madrilgo Gobernuak ez du epe jakinik Jaurlaritzari eran-

tzuteko. Litekeena da Gaztela eta Leongo Juntak eman dituen argudioak ematea erreferenduma eragozteko, baina, bide batez, konponbidea zein izan daitekeen argi adierazteko tenorean geratuko da.

Gaztela eta Leongo Juntak Trebiño bereizteko bidea geldiarazi zuen. Erabaki horrek, hala ere, ez du eragozten EAEk atxikitzeko prozesua bertan behera uztea. Auzitegi Konstituzionalak hala ebatzi zuen 1996an ateratako sententzian, esan baitzuen bi prozesuak «bateragarriak» direla.

Jaurlaritzak Madrilgo Gobernuari helarazi dizkion txostenak Arabako Diputazioak eta Uda elkarteak eginikoak hartzen ditu. Txosten horiek guztiek Gaztela eta Leongo Juntak eman zituen arrazoiaren desegokitasuna azpimarratzen dute, eta Trebiño Araba dela ondorioztatzen dute. Gaztela eta Leongo Juntak esan zuen Trebiño ikuspuntu historikotik eta kulturaletik Burgos dela eta ez Araba. X

'GAL auziko' kondenatuek espetxeratzeko epea dute

Barne Ministerioak 24 orduko epea eman die, gaur goizetik hasita

Agentziak / Madril

ESPAÑIAKO Barne Ministerioak 24 orduko epea eman die Marey kasuko hamar kondenatuei espetxera joan daitezen. Auzitegi Gorenak herenegun hartu zuen erabakia, eta atzo helarazi zion autoa Jaime Mayor Orejari. Hala, bihar goizetako espetxean aurkeztu beharko dute.

Julian Sancristobal eta Miguel Planchuelo Ocaña II espetxera joango dira; Francisco Saiz Ocea Logroñoko espetxera; Luis Hensek Malagako espetxera joatea eskatu du, bertan familia duelako; Francisco Alvarez Bartzelonako Can

Brians espetxera joango da, Bartzelonan bertan baitu bizilekua; Jose Amedo, Michel Dominguez eta Juan Ramon Corujo Alcala-Mecoko espetxean izango dira, eta Julio Hierro Brevakoko espetxera joatea eskatu du (Almería), Luis Roland dagoen emakumezkoentzako espetxera. Garcia Danboreneak espetxerik aukeratu ez duen arren, haren sendiak Europa Press agentziari jakinarazi dionez, ziurrenik Burgosko espetxera joango da.

Bestalde, Amedo eta Dominguez abokatuak jakinarazi zuten, erreguzko errekurtsoak aurkeztu zituzten atzo Auzitegi Gorenean. X